

Kontrako eztarriko iatrogenikoaren aurreko prebentzioa

Prevención del atrogantamiento iatrogénico

F. Salmón Antón*, E. Onís González**

* Arrigorriaga-Ugao-ko Osasun Zentroko Pediatra. Haurren istripuen mediku begiralea, **Arrigorriaga-Ugao-ko Osasun Zentroko Pediatra

Correspondencia: F. Salmón Antón.
Arrigorriaga-Ugao Osasun Zentroa
(Bizkaia). P. Urgoiti, 10.
48480 Arrigorriaga (Bizkaia)
fsalmon@euskalnet.net.

2004-ko Urrian, Osakidetzaren gripearen kontrako kanpaina dela medio, gripea harrapatzeko erreztasuna izan dezaketen herritarren kopuru estimatu batentzako bakuna dosis kopuru bat bidali zen osasun zentru ezberdinetara. Dosis hauei atxekiturik; idazkiak, poster informatiboak eta opari bat zeuden bakunatu beharreko bezeroentzat.

Aipaturiko oparia, Osakidetzaren logotipoa inprimaturik zuen boligrafo bat zen, Euskal Osasun Zerbitzua, Osasun departamentuaren logotipoa eta "JARRI GRIPEAREN AURKAKO TXERTO" idazkia zituen hain zuzen (Irudiak 1-2).

Gure osasun zentrura, aipaturikoak bezalako 700 boligrafo iritisi ziren, eta guzti hauek bakunaturiko jendearen artean banatzeko, jendea heldua nahiz umeak.

Kronograma sinplea zen; txerto bat jarri, eta honen ostean boligrafo bat, zeina kasu askotan umearen eskuetara iritsiko zen susmoa bazegoen. Honetaz gain beste erabilera posible bat kontsulta pediatrikora zetozen umeen artean banatzearena izan zitekeela pentsatu zen, boligrafo guztiak banatzeko helburuarekin.

Lehen boligrafoa ume bati eman genionean, honek, bi zirriborro egin eta aho-ara eraman zuen berehala. Orduan, boligrafoaren punta ateratzeko pieza (akziona-

mendu-botoia) hortzekin heldu eta eskuekin boligrafotik tira egitean, pieza hau ahoan geratu zitzaion (Irudiak 3-4).

Hau ikusirik, 700 boligrafo hauetatik zenbait aztertu ziren eta aipaturiko pieza (akzionamendu-botoia) askatzea oso erraza zela ikusi zen. 15 x 9 mm-ko pieza hau, ume zein pertsona helduen arnas bideetan kateaturik geratzeko gai izango litzateke, eta arrazoi honegatik erabaki da Zuzendaritza Medikua jakinaren gainean jartzea.

Erantzun gisa, gure herrialdeko zentru guzietara zirkular bat bidali da boligrafo hauen arrisku potentzialaz jakinarazteko. Idazki honetan azpimarratu behar da, boligrafoei pieza hau (akzionamendu-botoia) kentzea gomendatzen dela inori oparitu baino lehen.

KOMENTARIOA

Oso ohikoa da kontsulta batetan umei zenbait produktuen publizitatea egiten duten objektuak edo produktuak oparitzea, baina kontutan izan behar da, zenbaitetan potentzialki arriskutsuak izan daitezkeela heuren piezak askatzea oso erraza suertatzen bait da.

Paradogikoa dirudi nola Osakidetzaren logotipoa daraman oparitzeko objektu bat,



Irudia 1. Aipaturiko boligrafoa.



Irudia 2. Boligrafoa eta askatutako pieza.



Irudia 3. Sekuentziaren hasiera.



Irudia 4. Sekuentziaren amaiera eta arazo potentsialaren hasiera.



Irudia 5. Erraz aska daitezken beste opariren piezak.

aurreikusi ezin daitezkeen istripuak sortzeko gai izan daitezkeen.

Aipaturiko boligrafoaz gain, medikuko propaganda beste zenbait boligrafo aztertu dira eta %15-ean gauza bera gertatzen da, hau da, akzionamendu botoia erraztasun handiz askatzen dela (Irudia 5).

Ez bakarrik boligrafoetan, opari gisa banatzen diren arkatz batzuetan ere ikusi da goiko partean apaingarri moduko piezak daramatzatela. Hauek askatzen saiatuz gero ikus ahal izango da ez dela zaila hauek arkatzetik bareiztea.

Guzti honen ondorioz, neurri bezala, nolanahi umeei honelako oparirik ez ematea gomendatzen da, behintzat medikuok geuk, umeei irentsi ditzeketen izaera honetako piezarik ez dutela frogatu artean.

BIBLIOGRAFÍA

1. Haurren istripu lesioetatik aurretik babesteko ZAINBIDE proiektua.